

Hemen beira birziklatzen da

Hilaren 21ean San Markos Mankomunitateak eta Ecovidriok tabernari eta ostalarien artean beira bilketa sustatzeko kanpaina abian jarri zuten. Kanpaina dela eta, abendu amaierara arte, hainbat hezitzaile tabernaz taberna ibiliko dira gurean, jabeei birziklatzearen berri emateko.

Ainhoa Irazu

Mankomunitateak bildutako datuen arabera, beira hondakinen %47 ostalaritzak sortzen du. 1995etik 2000ra San Markos Mankomunitateak beira birziklapena bikoiztu zuen. 1995ean 2.720.849 kilo beira birziklatu ziren bertan. Iaz, berriz, 5.979.895 kilo. Horri esker, lehengaietan 7.175 tona aurreztu ziren (771 petrolio) 2000.urtean.

Hala eta guztiz ere, "Hemen beira birziklatzen da" izenburupeko kanpainarekin, ostalaritza sektoreko beira bilketa areagotu nahi da.



Kanpainarekin bat egiten duten taberneak atxikimenduaren berri ematen duen eransgailua jasoko dute.

Kanpaina Mankomunitateko udalerrietara zuzenduta dago: Donostia, Errenteria, Pasaia, Oiartzun, Lezo, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbil, hain zuzen ere.

Abenduaren 21era arte

Donostian, kanpaina abenduaren 21era arte luzatuko da. Bi hezitzailek hiriko 805 taberna bisitatuko dituzte. Une honetan bi bilketa modu daude hiriko ostalaritza sektorean. Atez-ateko bilketa Parte Zaharrean besterik ez da egiten (218 taberna), astean

bost aldiz. Gainerako ostalariek Mankomunitateko ontzietan zuzenean uzten dute bildutako beira, eta horiei begira antolatu da kanpaina. "Jabeei beira bilketa egitearen garrantziaren berri emango diegu. Kon-tuan hartu behar da beira birziklatuz lehengaia aurrezten dela eta ondorioz, in-gurumena zaintzen dela. Beira % 100 da birziklagarria. Hala eta guztiz ere, ez du ezertarako balio birziklagarri izatea birziklatzen ez den neurrian", jakinarazi digu Elena Egurrola kanpainako arduradunak.

Hezitzaileek informazio orriak banatuko dituzte ostalarien artean. Horrez gain, kanpainarekin bat egiten duten taberneak atxikimenduaren berri ematen duen eransgailua jasoko dute.

Bilketa zerbitzu eraginkorra

Bestelako neurriak ere hartuko ditu San Markos Mankomunitateak. Esaterako, hala behar izanez gero ostalariek gurpildun ontziak eskuratuko dituzte, bertan beira bildu eta ondoren Mankomunitateko ontzietara erraz garraiatu ahal izateko. Bestetik, birziklapena taldeak beira biltzerakoan ostalariek zein oztopo dituzten aztertuko du. "Helburua bilketa zerbitzua eraginkorra izatea da. Horregatik zer nolako beharrak dauden ikusi behar da: azpiegiturak, ordutegiak, bilketa moduak eta abar", jakinarazi digu Egurrolak.

Atez ateko bilketa %42 igo da

Kale kantoitik

Datuak mintzo

	2000	2001
Atez ateko bilketa	317.547 kilo	451.069 kilo
Beira-ontzietan	2.642.835 kilo	2.793.600 kilo

*Urteko lehen hamar hilabeteak soilik hartu dira kontuan

Aurten iaz baino beira gehiago bildu da Donostian, bai beira-ontzien atalean eta baita atez ate eginiko bilketan ere. Ontzietan bildutako beira %5,7 igo da eta atez ate jasotakoa, berriz, %42. "Egun, atez ateko bilketa asteburuan ere egiten dugu. Beraz, bilketa asko igo da", dio Egurrolak. Bestalde, Donostian 300 beira-ontzi daude, hau da, ontzi bat 594 laguneko.

